

TXIMELETAK HONDARTZAN

Maixa Zugasti



MAIXA ZUGASTI

TXIMELETAK HONDARTZAN

Marrazkiak: Aitziber Alonso Pikabea



erein **AUSKAZO**

idazlea
maixazugasti



Maixa Zugasti (Tolosa, 1973). Deustuko Unibertsitatean Hispaniar Filologia ikasketak egin ondoren, irakasle ari naiz lanean. Orain arte bi eleberri argitaratu ditut.

Tximeletak hondartzan da hurrei zuzenduta idatzi dudan lehen liburua. Tximeletak argi-inguruan bezala, ni, beti libururu artean: irakasten, irakurtzen, idazten... Hitzek ere argirantz hegaldatzea maite dutelako osatu dut eskuartean duzun ipuina.

Gehiago jakiteko: www.maixazugasti.eus

aitziberalonso

marrazkilaria



Aitziber Alonso Pikabea (Donostia 1971)

Arte ederretan lizentziatua naiz. Ilustrazioaz gain, Galtzagorri elkartearekin egiten dut lan, literatur aretoen eszenografiak egiten, Ilustratzailearen txokoa eta Marrazioak tailerra koordinatzen eta ahal dudan saltsa guztietan sartzen.

*Karmeni
eta nire ikasleei,
bihotzez*

Astelehena

Zortzi urte bete berriak nituen Ane ezagutu nuenean. Astelehena zen. Egia esan behar badut, berak ikusi ninduen ni lehenbizi. Zarauzko malekoian geunden, estalpean, euria noiz atertuko zain. Haur ugari zegoen bainujantzian, zerura begira. Ane niregana hurbildu zen. Euritako gorri-gorria zeraman soinean eta bere hanka zurien amaieran, txankleta urdinak. Uda hartan, bost egun bakarrik igaro genituen elkarrekin, baina, ordudanik, nire lagun mina da Ane.

–Zer ari zara abesten? –galdetu zidan alboraino gerturatuta.

–Ez nintzen abesten ari –erantzun nion zakar neskatilari.

–Zer izen duzu? –jarraitu zuen, eta bere burua aurkeztu zuen ondoren—. Ni Ane naiz.

–Adela –erantzun nion, isilarazteko asmoz.

Ordurako, zirimiria zela eta, estalpea jendez beteta zegoen. Ni itsaso biluzira begira nengoen. Han ez zen ez belaontzirik, ez uharterik. Ilun zegoen zerua eta ilun, haren ispilua zen itsaso zabala ere. Ekaitzak uxatuak izango zituen denak. Guk, ordea, han jarraitzen genuen; baita hondartzako jendeak ere. Herrira iritsi berriak ginen, eta Izaskunek pasealekuraino joango gina agindu zien bere bi alabei.

–Etorri nahi al duzu itsasertzera? –galdetu zidan niri ere, maletatik bere alaba Amaia eta Naroarentzat euritakoak ateratzen zituen bitartean.

Amari begiratu nion.

–Joan zaitez... –agindu zidan, nire belarri ondora makurtzen zen bitartean–. Esker onekoa izan behar da beti, Adela; Izaskunek zerbait eskaintzen dizun ba-koitzean, «eskerrik asko» erantzun behar diozu.

Kopetilun jarri nintzen, baina inork ez zidan begiratu ere egin. Bi neska haiekin hondartzara joan baino nahiago nuen amari laguntzen geratu. Hala ere, haren hitzek sarrerara bultzatu ninduten eta hantxe geratu nintzen, ate ondoan zain, irteteko prest. Nik ez nuen ez euritakorik, ezta txankletarik ere; beraz, ez nituen arropak aldatu behar Amaiak eta Naroak bezala.

Garai horretan, amak Izaskunen eta Asierren etxeko lanak egiten zituen Donostian. Nik zortzi urte bete nituen udan, Zarauzko etxera gonbidatu gintuzten: amak etxeko lanetan lagunduko zion Izaskuni; ni, berriz, Amaiarekin eta Naroarekin ederki ibiliko nintzen hondartzan. Nik, ordea, ez nuen Zarautzera etorri nahi; ez nituen Izaskunen etxean bost egun igaro nahi; Donostian geratu nahi nuen, eta lehengusuekin igeri egiten ikastera joan, baina inork ez zidan iritzirik eskatu. Bi egun lehenago, ostiralean, eman zidan amak erabakia-
ren berri, ohean, beraren alboan lokartzen ari nintzela:

–Astelehenean, Zarautzera joango gara Izaskunekin, Amaiarekin eta Naroarekin.

Esnatu egin ninduen. Logurak ihes egin zuen izara artetik eta kezkek bete zuten nire burua: zer egin behar nuen nik bi ume haiekin hondartzan?; aspertu egingo nintzen..., eta lotsatu, gu behartsuak baikinen, eta haiek, aberatsak. Amak behin eta berriz errepikatzen zidan hori, eta begi-bistakoa zen: nik ez nuen haien jantzi dotorerik; ez, haien jostailu eta ordenagailurik ere. Gu behartsuak ginen, eta, horregatik, «eskerrik asko» esan behar nion Izaskuni zerbait eskaintzen zidan bakoitzean. Eta larunbat goizean, oporretara joango ginela esan zidanean, «eskerrik asko»

esan nion, amak erakutsi bezala. Niretzat, oporrak eskola gabeko egunak ziren; amarentzat, atsedeen-egunak, eta, inoren etxea garbitzera joan gabe, gure logelari geratzen zen egun horietan. Izaskun, ordea, ez zen horretaz ohartu: ama oporretara eramango zuen Zarauzko etxeko lanak egitera.

–Atertu du –esan zidan Anek zerura begira.

Hondartza atontzen zuten gizonak pasealekuan txukun pilatutako egurrezko eserleku eta aulki zuri-urdinak jaitsi zituzten hondarretara. Zutabe urdinetan biribilduta lotutako oihala zabaldu, eta etxetxoak erai-ikitzen hasi ziren. Izaskunen atzetik joan nintzen. Gurean, 002 jartzen zuen.

–Uda honetan, gure aldagela izango da –esan zidan bainujantzi marradun bat luzatuz.

–Eskerrik asko –erantzun nion barrura sartuz. Biluztu eta bainujantzi berria jantzi nuen. Ederra zen: ez zen erraza gorriaren gainean marra beltzak zituen be-reiztea ala beltzaren gainean marra gorriak nagusitzen ziren esatea. Bularraldean, oihalak olatuak sortzen zituen eta toldoaren zirrikituetatik sartzen zen haizea bainujantzi berriarekin jolasten zen.

Hondar gainean eseri eta hankak kanpora luzatu nituen. Une batez, nire etxetxoa izango zen, nirea

